

TOLOSA ▶

Joseba Rojo Munduko Txapelketara

Suedian da, eskola
arteko txapelketan ▶ 2



Inauterietako karroza lehiaketa berritzea «ondo» hartu dute taldeek

TOLOSA ▶ Festa Batzordeak balantzea egin du;
Geltokia da barrakentzako «lekurik aproposena» ▶ 3



Karroza eta konpartsa lehiaketako irabazleak txapelekin eta udal ordezkariekin. NOELIA LATABURU



DANI GIBELALDE



Maria Ongay eta Xabier Pagola, judon goi mailan

TOLOSALDEA ▶ Espainiako Txapelketan parte
hartuko dute Madrilan 26an eta 27an;
urrezko domina lortzea dute helburu ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Bihar 19/98 auzikoak bilduko dira Kursaalen

Eskualdeko lau lagun
daude tartean ▶ 4

IBARRA ▶

Misio Taldeak jaso duen laguntza eraman du Indiara

Laguntzekin funtzio anitzeko zentroa
hasi dira eraikitzen Ghogha herrian ▶ 6



HITZA

ARESO ▶

Hainbat herrilan 2005-07 planean

Atzo udalbatzarrean
onartu zituzten ▶ 7

JOSEBA ROJO ▶ ESKIATZAILEA

«Olinpiar Joko batzuetara iristea da nire ametsa, baina oso zaila da»

J. Saizar ▶ Gure inguruko eskiatzaile gutxiak lortu dute aste honetan Joseba Rojo tolosarrak egingo duena, mundu mailako eski proba batean parte hartzea. Atzo abiatu zen Suedia aldera, Gallivaren igandetik ostegunera egingo diren Munduko Eski Txapelketa Eskolarretara. Joan aurretik, HITZAREkin izan da, entrenamendu baten ondoren, Vall d'Azunen, elurretan.

Nola lortu duzu?

Aurten ondo nabil eta proba batzuk irabazi ditut, baina uste dut Espainiako Kopan erabaki zutela. Nire adinean [1988an jaioa da] bigarren izan nintzen eta lasterketan bosgarren. Nire adinekoak eta gazteagoak

goaz. Mutiletan bi andaluz, katalan bat, nafar bat eta ni goaz. Beste bost neska ere badoaz: lau aragoar eta andaluz bat.

Zein da helburua?

Ondo ibiltzea eta ondo pasatzea. Oso zaila da lehen postuak lortzea, munduko onenak daudelako.

Ze proba izango dira?

Hiru dira: kilometro bateko esprinta, 7,5 kilometroko bana-kakoa eta 4x5 kilometroko erreleboa.

Nola doa denboraldia?

Nagusienak aipatzeagatik, Euskadiko Txapelketa irabazi dut, Mayencos proban 5.a izan naiz, Marxa Bereten 4.a eta Casablanca irabazi dut. Espainiako Kopan laugarren noa.

Zein duzu helburu nagusia?

Espainiako Txapelketa. Mar txoan izango da Candanchun.

Nola entrenatzen duzu?

Txiki Plazas dugu entrenatzailea eta bere lana eskertzekoa da: entrenamendu taula pres-tatu digu, jarraipena egiten digu, argizariak aukeratzen eta ematen erakusten digu. Astearen bost entrenamendu egiten ditut. Asteartero biltzen gara Alpino Uzturre taldekoak eta asteburuan bi egunetan eskiatzen dugu. Beste egunetan korrika, mendira, bizikletan edo rolleskin ibiltzen naiz bakarrik, eguraldiaren arabera. Mendira joaten banaiz, ordu pare bat egiten ditut, Belabieta aldera edo; rolleskin



HITZA

ordubete edo ordu eta laurden; bizikletan ordu eta erdi. Oso gogorra da, baina gustura nabil. Eta emaitzak onak dira.

Zein da zure ametsa?

Olinpiar Joko batzuetara iristea, baina oso zaila da.

Probarik politena?

Bereteko azkena. 17 kilometro zituen. Luzeak hobeto dihoazkit. Eta estilo klasikoan hobeto moldatzen naiz.

Eskiatzaile onena?

Andrews Veerpalu estoniarra klasikoan. Patinatzailean Mathias Fredrickson suediarra. ◀

GIZARTEA ▶

Bihar Haur Misiolari jaia Indiaren alde

Eskualdeko Misio Taldeak antolatuta, 16:00etan hasiko da Leidorren; eskualdeko hainbat taldek hartuko dute parte

JOXEMI SAIZAR

Indiako Vedruna Samajik Kendraren alde izango da Tolosaldeko Misio Taldeak aurten antolatatu duen jaialdia. Urtero antolatzen den Haur Misiolarien jaialdia bihar 16:00etan izango da Leidor zineman *Zabaldu zure begiak misioetara* lelopean. Beti bezala, eskualdeko hainbat ikastetxe eta taldek parte hartuko dute, bera dantza, gimnastika, musika, kanta eta berto saioak eskainiz.

Ondorengo partaideak izango dira taula gainean: Tolosako

Musika Eskolako musika taldea, Belabieta kirol elkarteko dantza taldea, Laskorain Ikastolako abesbatza, Irurako dantza taldea, Hirukide ikastetxe-ko gimnastika erritmikoko taldea, Albizturko katekesiako bertsoak, Tolosa CFko gimnastika erritmikoko taldea, Samaniego ikastetxe-ko abesbatza eta Berastegiko dantza taldea. Aurkezle lanetan Nerea Pikabea ariko da eta laguntzaileak Zumeta megafonia eta Tolosako Udala dira. Haurrek bi euro ordaindu beharko dituzte eta helduek, lau euro.

Indiako egoera

Vedruna Samajik Kendra Indiako gobernuak onartu eta egiaztatutako erakundea da. Haurren eta emakumeen heziketa, osasuna eta formazioa dira bere helburu nagusienak. Hango gizarte egoera oso larria da bizieran, hezkuntzan eta ondasunetan. Erakundearen ikasten dutenen guraso gehienak, musulmanak dira, kasta taldeak kanpokoak, arrantza-leal edo kale garbitzaileak.

Gogha Gujrateko probintziako ekialdean dago, Tar basa-

mortuaren ondoan, Pakistango mugan. 100.000 biztanle dute horrela: lau urtean euri tanta jaso gabe, janari gutxirekin, arrantzatik edo zerealetik jasotzen dutenarekin bakarrik.

Bizimodu gogorra dute lurralde hartan. Eguneko euro bat eskuratu ezinezko lanean eta mirabetasunean saiatzen dira, itsas ontziak zatikatzen edo arrantzan. Horrela 50.000 biztanle eguneroko larritasunez inguratuta.

Ibarrako San Bartolome misio taldea zerbitzu hauek bideratu nahi ditu, hemengo herri-tarren diru laguntzarekin: bi eta bost urte bitartekoentzako haurtzaindegia, eskola zerbitzurako aterpea, gurasoen bileretarako lokala, emakumeen formaziorako lokala, gazteen kultur programak aurrera ateratzeko lokala eta gutzien zerbitzuak bideratzeko lokala.

Biharko jaialdian lortutako dirua Ibarrako taldea bultzatzen ari den proiektu horietarako erabiliko da.

MUSIKA ▶

Dinbi danba jazz rock taldea Fronton kafetegian

Donostiako taldeak lehen diskoa du kalean; emanaldia 23:00etan hasiko da

J.SAIZAR

Dinbi danba musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur 23:00etan Fronton kafetegian. Donostiako lau gazte dira taldeko partaideak: Josserra Lorenzo gitarra, Roge Garcia bateria, Miguel Alonso tronpeta et Imanol Lorenzo baxua. 2000 urtean sortu zuten taldea. Jazz rock estilo-ko abesti propioak eta beste talde batzuen bertsoak egiten dituzte. Disko bat dute.

hitza

txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

POLITIKA ▶

Konstituzioari, «ez»

Herri plataformakoek horretarako argudioak eman dituzte

IRATXE ETXEBESTE

«Datorren igandeko erreferenduma dela eta, Tolosako Herri Plataformak berriro gogorazi nahi ditu bere garaian eman zituen arrazoiak Europako Konstituzioari ezezkoa botatzeko: estatuek duten erabakitze-ko ahalmena eta estaturik gabeko herrien interesak defenditu ezina. Euskarari eta euskal kulturari, Europako zaharrena denean, inongo aitortza-

rik ez egitea. Oinarrizko eskubideen ukatzea: lana, etxebizitza, osasun publikoa... Eta, baita ere, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka ez duela bitartekorik jasotzen». Horixe zioten herenegun iluntzean Tolosako Ezezkoren aldeko Herri Plataformako kideek prentsaren aurrean egindako agerraldian.

Haien aburuz, ezezkoa botatzeko arrazoiak badaude, «eta atentzioa ematen dute baiezko

botoa eskatzen dutenen arrazoiak kontrajarriekin»: PSOEek eta PPK baiezkoarekin «Espainia gehiago eta Konstituzio gehiago ikusten duten bitartean, EAJk baiezko botoa eskatzen digu horrekin Europa eta Euskadi gehiago izango digulakoan». Ezezkoren aldeko plataformako kideen esanetan, baina, «ondo dakigun bezala, txapela batekin ezin dira bi buru estali; hori lortu nahi dute baiezko eskatzen dutenek».



Tolosako Ezezkoren aldeko Herri Plataformakoak, herenegun. HITZA

Herri Plataforma horrek dio igandeko hauteskondeek «beren garrantzia» dutela, eta «gure botoak Ez izan behar» duela, Euskal Herria irabazten ateratzeko «modu bakarra» horixe delako. Hori dela eta, animatu

egin nahi ditu tolosarrak botoa ematera joateko: «Postontzietara iritsitako sobreek balio dute, edonork bidaliak direla ere: hori bai, kontuan izan Ez idatzia daraman papera sartu behar dela barnean».

INAUTERIAK ▶

Festa Batzordearen ustetan, lehiaketa eraberritu izana «ondo» hartu dute taldeek

Balantze baikorra egin dute, orokorrean, pasatu berri diren jaietako buruz: «Geltoki plaza lekuri aproposena da barrakak jartzeko»

I. ETXEBESTE

Tolosako Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketa «eraberritu» izana taldeetako kideek «ondo» hartu dutela ondorioztatu dute Festa Batzordekoek, pasatu berri diren jaietako balantze orokorra egitekoan. Hala ere, taldeen emandien luzearekin, irteera ordenarekin eta soinua ekipoen bolumenarekin arazorik ez sortzeko «aldez aurretik hitz egin behar» dela irizten diote Festa Batzordeko kideek, eta gaia aztertzekotan geratu dira.

Inauterietan hara eta hona jardun duten txarangei buruz, bestalde, kalejira guztiak «ondo» burutu dituztela, eta gaueko txaranga gehiago jartzea «ondo» legokeela diote Festa Batzordekoek, nahiz eta aurrean, asko, «beranduegi hasi diren». Salbuespenak ere izan dituzte aiputan: «San Esteban txarangeak astearteko txistularien jarduna ez errespetatzea eta zezen-plazako ate handia egun batean garaitz ez irekitzea: txarangek zain egon behar izan zuten». Ildo horretatik, zezen ikuskizunetako balantze baikorra egin du Festa Batzordeak, esanez, abereen neurria eta parte-hartzaileen kopurua «egokiak» izan direla.

Ez, baina, atezainaren eta akomodatzaileen jarduna, antolatzaileekin arazoak izan dituztelako: «Herriar batzuek sarrerak erosi dituzte, eta tokirik ez zegoen zezen-plazan».

«Zaldunita bezperako danborradan gehiago zaindu behar da Galtzaundirena. Errekuperatu egin behar dira txantxoak eta Inauterietako beste pertsonaiak, eta danborradak arinago joan behar du; taldeen arteko tarteez ez dute hain handiak izan behar». Horixe irizten dio Festa Batzordeak larunbateko danborradari.

Kontzertuei dagokienean, berriz, musika emanaldiek eta disko festak sortutako zararekin Alde Zaharreko bizilagunak «kexu» agertu direla esan du Festa Batzordekoek, eta gainerako atalekin —txosnak, barrakak...— bezala, kontzertuekin ere txandatze sistema bera erabiltzea eskatu dutela. Barraketarako Geltoki plaza «oso toki aproposa» dela uste dute, bestalde; «orain arteko gumerik aproposena», eta txosnaguneari buruzko balantzea ere baikorra da: «Txosnaguneko ordezkariak azaldu dute, karpa bakarrean eszenatoki eta barra bakar bana izateak ondo funtzionatu du; ona izan da jendearen erantzuna.

Beraien egitaraua bete egin dute, eta musika karpa barruan izateak, bizilagunak moletatu gabe, bolumena egokia izateko balio izan du». Festa Batzordekoek esandakoaren arabera, Udaltzaingoaren eta kale garbitzaileen jarduna eskertu egin dute txosnaguneko ordezkariak. Gauza bera esan dute haiek ere. «Bikaina» izan da Udaltzaingoaren eta garbitzaileen jarduna, eta, herria txukunago mantentze aldera, behin-behineko komun gehiago jartzea komeni dela diote, bai neskenentzat bai mutilentzat.

Orokorrean baikorra da Festa Batzordekoek Inauterietan inguruan egindako balantzea. Askorentzat eskualdeko jairik herrikoienak direnak «ondo» joan dira, beraz, orohar. Hala ere, onak beti izaten du zerbaitez txarretik, eta aurtengo Inauterietan ere izan da okerrik edo akatsik antolatzaileen aldetik: Alboradan, esaterako, bildutakoek esan zuten banatutako anisa «oso kalitate eskasekoa» zela, eta antolatzaileek anisaren lekuan txokolate beroa banatzea proposatu dute. Hurrengo urterako aztertuko omen dute gaia. Moiz baino goizago hasi dituzte arduradunek festa aurretik. Hori ere hutsegite modukoa izan da: Ostegun Gi-



Konpartsen eta karrozen lehiaketan saritutakoak, herenegun. HITZA

zeneko eguerdia baino lehen bota zutelako udaletxeko baloikit txupinazoa.

Lehiaketako saridunak

Bestalde, atzo jaso zituzten karrozen eta konpartsen lehiaketako irabazleek zegozkien sariak. Tolosako alkate Jokin Biddarratzen eta Kultura eta Jai-

tako zinegotzi Andoni Iturzaetaren eta Joxelu Anduezaeren eskutik jaso zuten txapela baina, eta aurtengo Inauterietako irudiak ikusi ahal izan zituzten, gainera, txarangeak doinuekin. Udaltzaingoaren aldeko irudirik hartutako norbanako eta talde guztiak eta ekitaldira bildutakoek eskerrik «zintzoenak» eman zizkieten, bukaeran.

Leidor Aretoa - TOLOSA

Otsailak 18 ostirala 22:30

Ezetz lepoa jarri

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Bestelako Europa bat, sozialistotik!

Egun hauetan, argudio ugari ari gara ezagutzen, Europako Itun Konstituzionalaren erreferendumean ezetza emateko. Eta bada arrazoi bat, hainbat eta hainbat esparrutan ageri dena. Gainera, askorentzat aurkako arrazoi nagusia da: eraikitzen ari diren Europa kapitalista ez da langile, ez herritarrena edo herriena, hain zuzen ere.

Argi eta garbi jakin behar dugu, orain, Itunak, Europako

Batasuna osatzeko prozesuak hartu duen eredu kapitalista, konstituziora ekarri nahi duela. Eredu ekonomiko kapitalista geroz eta lehiakorragoa eta globalizatuagoan, merkatuaren lehia askean oinarritutako eredu bat eraikitzen segi nahi dute eta horrek langile klasearen eta herritar gehiengoaren zapalkuntza areagotuko du, kapitalaren eta Europako burgesia nazional desberdinen mesederako. Dagoeneko ezagutzen ditugun neurri eta politikak dira hauek: enplegu osoaren eta kalitatekoaren alde egin beharrean, lan malguta-

sun handiagoa, gastu sozialer murrizketa, pribatizazio gehiago, e.a. Ezberdintasun sozialak handitzen eta zerbitzu publikoak aktibitate ekonomiko bihurtzen joango dira. Europako Batasuna, kapitalismo basati honetan indartu nahi dute Amerikako Estatu Batuen, Txinaren eta Japoniaren aurrean. Eta pertsona eta herrialde pobreen kontura bizitzen jarraitu nahi dute. Bestalde, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea, euskara eta kultura ez ditu bermatzen, horrela, arazo nazionalaren konponbidea gehiago oztopatuz. Europako

Konstituzio hau ez da gizon-emakumeen arteko parekidetasunaren aldekoa eta ingurumenaren mugak ez ditu errespetatzen. Estatuaren, inperialismoaren eta arrazismoaren Europa da.

Bestelako Europa bat behar dugu. Kapitalismoa desegiten ez dugun bitartean, amesgaiztoak segiko du. Kapitalismoaren logika baztertu eta Europa sozialista bat dugu alternatiba! Non langileak, herritarrek eta herriak, benetako protagonisak izango diren, eta hauen eskubideak lehenetsiko diren, kapitalisten interesen aurrean.

Behar sozialak asetzeko, baliabide ekonomikoak langileen eta jendartearen eskuetan jarri behar dira, azken batean, denok bizitzeko eta lan duinak nahi ditugulako. Langileak, herritarrek eta herriak elkartuta, Europako herri libre eta sozialisten Batasunaren alde borrokatu dezagun!

Guztia gatik, erreferendumaren emaitzak guztion etorkizuneari eragin handia izango du eta, zita garrantzitsu bat dugu datorren igandean, otsailaren 20an, Europako Itun Konstituzionalari ezetza emateko.

MANU ODRIOLZA ▶ ANOETA

ASTEASU ▶

Gipuzkoako pala txapelketa gaur hasiko da pilotalekuan

I. GARCIA

Gipuzkoako Pala Txapelketa gaur emango zaio hasiera Asteasuko pilotalekuan. 21:30ean hasita, Agiñako Galarra eta Larburu, Anoeta, Bengoa eta Landaren aurka ariko dira. Ondoren, Asteasuko Sarasua eta Txapartegi, Ataungo Tobar eta Zalduaren aurka. Azkenik, Hernaniko Oskar eta Iban, Amara Zaharrako Rafa eta Josuren aurka.

18/98 AUZIA ▶

Kursaalean elkartuko dira auzipetutakoak

Eskualdeko lau lagun daude makrosumarioan auzipetuta

IMANOL GARCIA

Donostiako Kursaalean elkartuko dira bihar 18/98 makrosumarioan auzipetutakoak, goizeko 11:00etatik aurrera. Horietatik lau eskualdekoak dira: Mikel Egibar zizurkildarra, egun Soto del Realen preso dagoen Julen Zelarain billabonatarra, Nekane Txapartegi asteasurra eta Jose Mari Olarra



18/98+ lantaldearen aurkezpen ekitaldia. GARI GARAIALDE/BERRIA

billabonatarra. Auzipetu bakoitzak hamar gonbidatu eramain ahaliko ditu.

18/98+ lantaldeak deituta egingo da batzarra. Lantaldea makrosumarioak zuzenean kaltetutakoak, zein sumario horrengatik «kezkatuta gauden hainbat pertsonak» osatzen dute. Bihar egingo den bileran azalduko da zertan den egun makrosumarioen egoera eta hilaren 26an Bilbon egingo

den manifestaziorako deialdia zabalduko dute.

Laster hastekoa da 18/98 sumarioaren ahozko ikustaldia. Lantaldeak manifestu batean argitzera eman zuenez, makrosumario horretan «zilegi eta bidezkoak diren jardura politiko eta sozialak ETaren konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parelatzen dituen tesia frogatzea helburutzat duen sumario iturburua da».

ALEGIA ▶

Ttapa taldeak 'Gizonak' obra taularatuko du

Ttapa taldeak *Gizonak* antzezlan eskainiko du gaur eta etzi, 22:00etan, Alegiako Kultur Etxean. Sarrerak salgai daude hiru eurotan Kultur Etxean.

ANOETA ▶

Urnietan ariko dira jokoan bihar jubilatua

Bihar, 10:00etan, eskualdeko mahai jokoen txapelketa egingo da Urnietan eta bertan izango dira Alkartasunako kideak. Ariko direnak: musean, lau erregetara, Imanol Sarasola eta Jose Maria Salvador; zortzi erregetara, Jose Luis Mendizabal eta Manolo Iriarte; tutean, Ignacio Amorriz eta Laureano De Arriba; seisetan, Mari Sol Zinkunegi eta Maialen Mariat; eskoban, Maria Jauna Zinkunegi eta Maria Angel Gabirondo; puntuan, Agustina Iruretagoiena eta Jose Miguel Gonzalez; tokan, Fidel Benito eta Angel Brillo; txintxonan, Rita Josefa Gaston.



TOLOSAKO UDALA

lehiaketa

- 1.- Helburua.- Tolosako errotan dagoen taberna ustiatzea
- 2.- Kanona.- Kotratistak Udalarri ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko du.
- 3.- Kontratuaren iraupena.- bost (5) urte iraungo du. Gero kontratu hori urtez urte luzatu ahal izango da.
- 4.- Espediente ikusteko.- Tolosako Udaletxean, Hirigintza, Obra eta Zerbitzueta Departamentuan. Plaza Zaharra, 6-B. Tel.942697451
- 5.- Behin behineko fidantza.- 600,00 €
- 6.- Behin betiko fidantza: 6.500,00 €
- 7.- Eskaitza egiteko epea eta tokia.- Tolosako Udaletzeko sarrera Erregistroan, Plaza Zaharra, 6-B, .2005- 03- 04, eguerdiko ordu bata (13:00) arte.

Tolosa, 2005eko otsailaren 17an • ALKATEA

BI URTE Egunkaria GABE

EKITALDIA: otsailak 20, igandea, 11:30ean**Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean**

EGUNKARIAREN ALDE elkartea



KIROLA ▶

Tolosaldeko bi gazte hauek otsailaren 26an eta 27an Madrilen jokatu den Espainiako Judo Txapelketarako sailkatu dira. Lehiaketa honetan urteetan bildutako esperientzia eta euren ilusio guztia besapean, biek ala biek urrezko domina lortzea izango dute helburu **I. TERRADILLOS/N. LATABURU**

MARIA ONGAY ▶ JUDOKA

«Entrenamenduak gogorrek dira, baina gogoz egiten ditut, kirol honek erotu egiten nau eta»

Maria Ongay tolosarrak hamai-ka sari irabazi du dagoeneko kirol honetan. Espainiako selekzioan aritua da eta Europako hainbat lehiaketatan ere jokatu du. Maleta ilusioz eta gogoz gainezka abiatuko da hurrengo asteko asteburuan, otsailaren 26an eta 27an, Madrilen, Espainiako Judo Txapelketan lehiatzera.

Espainiako Txapelketara helizko bide luzea egingo zenuen.

Aurtengoan zuzenean sailkapena ziurtaturik nuen, aurreko urtean zilarrezko domina lortu nuelako, izan ere irabazleei lekua gordetzen diete. Gipuzkoako Txapelketan aritu naiz eta lehen postua eskuratu dut baina ez dut Euskal Herrikoa jokatu beharrik izan.

Gogorra da maila honetako lehiaketa bat prestatzea?

Orain egunero entrenatzen dut, bi ordu inguru. Tartean lehiaketa garrantzitsurik ez denean, berriz, astean hiru aldiz. Gogorra da sakrifizioa suposatzen duelako askotan baina nik oso gustura egiten dut, kirol honek erotu egiten nau eta.

23 urte azpikoekin aritzen zara. Jokatzekoan, alde nabaritzen al duzu?

Maila hauetan, adina baino esperientziak bereizten ditu jokalariak. Indarra eta ahalmena antzekoa dugu denak; entrenamendu orduak eta norberak jartzen dion gogoia da garrantzitsuenak, beraz. Maila berean gazteagoak eta helduagoak jokatzen dugu.

Zure aurkariak ezagutzen al dituzu?

Gehienetan aurkariak berdinak gara eta elkar ezagutzen dugu, lehiaketetan behin eta berriz jokatzen baitugu elkarren aurka, horregatik badakit zeinek dituen aukera gehiago edo gutxiago.

Curriculum luzea duzu, ziur etxean ez zaizkizula domina eta sari guztiak sartzen.

Duela 13 urte hasi nintzen kirol honetan eta lehiaketa askotan hartu dut parte orduztik. Azken hiru urteetan Espainiako txapeladunordea izan naiz eta Espainiako selekzioarekin Europan izan naiz, besteak beste.

Noizbait pentsatu al zenuen horren urruti iritsiko zinela? Zerbait berriari ekiten diozu-

nean, inoiz ez duzu espero horren urrun ailegatzea, baina aurrera zoazen ahala, gero eta hobea da. Adibidez, Europan aritza ikaragarria izan da, aldi berean gertu eta urrun ikusten nuen Europan jokatzeko aukera, baina irabazteko ia ezinezkoa.

Judoak luzerako harrapatu al du Maria Ongay?

Oraingo bai. Jendeak luze irauten du kirol honetan, bakoitzak dituen baldintzen arabera, beti ere. Ahal dudana bitartean mantendu nahi dut nire buruan.

Jarraitzerik ba al duzu?

Nire ama da dudana jarraitzerik sutsuena, lehiaketa guztietara etortzen da beti nirekin. Horrekin batera, lagunak, judoko taldekideak eta entrena-



LEIRE MONTES

tzaleak ere gertu sentitzen ditut lehiatzerakoan.

Zure hurrengo erronka?

Espainiako Txapelketa irabaztea. Gogo eta ilusio guztia jarriko dut eta postu ona lortzea da nere helburua. Irabazten badut? Bada, primeran. ◀

XABIER PAGOLA ▶ JUDOKA

«Txapelketa honetan asko daukat irabazteko eta oso gutxi, ordea, galtzeko»

Xabier Pagola, 19 urteko ibar-tarrak, makina bat konpetizio irabaziak ditu judoan. Kasu honetan, pasa den asteburuan sailkatzea lortu ondoren, Espainiako txapeladun izateko lehiatuko da Madrilen, Maria Ongayekin batera.

Lan handia egin eta gero azkenean helburua bete eta sailkatzea lortu duzu.

Gogorra izan den arren oso pozik nago. Gipuzkoakoan nahiko larri ibili nintzen sailkatzeko, baina azkenean bigarren postua lortu nuen. Euskadiko Txapelketan, berriz, urrezko domina eskuratu nuen eta, honen ostean, Espainiako iparraldeko sektoreko lehiaketa jokatu nuen Zaragozan. Bertan bigarren geratu nintzen eta honi esker Espainiako Txapelketarako pasea eskuratu nuen.

Gustura, beraz.

Bai, helburua hori zen eta oso gustura nago lortutako emaitzarekin. Lan handia egin ondoren, bere etekinak eman dituela jabetu naiz.

Zein da zure helburua datorren asterako?

Presio gutxirekin joango naiz, asko baitut irabazteko, baina ezer gutxi galtzeko. Helburu nagusia bete dut dagoeneko, Espainiako Txapelketan izatea, hain zuzen ere. Hemendik aurrera, postu on batean sailkatzea lortuko banu, borobildu egingo nuke denboraldia.

Gainera, oraindik oso gaztea zara eta denbora asko gertatzen zaizu judoan.

Bai, hala nahiko nuke behitzat. Oraindik gaztea naiz eta karre- ra hasteko nago eta kirol hone-

tan urte asko geratzen zaizkidala pentsatu nahiko nuke, arazorik ez bada.

Urte hauetan guztietan aurkariak elkarren artean ezagutuko zineten, noski.

Bai, jakiten duzu nor den zure aurkaria, baina beraiek ere ezagutzen zaituzte zu, beraz nik nahiago izaten dut nire aurkaria nor den ez jakitea, zure alde onak eta txarrak ondo ezagutu eta ikasi baitituzte, nahiz eta zuk ere beraie- nak dakizkizun. Berria den

aurkari batekin aritza atseginagoa da.

Abentura honetan Maria Ongayekin batera egongo zara.

Elkar ezagutzen dugu, baina ez gehiegi, horrelako lehiaketetan egin ohi dugu topo. Datorren asteburukoan ere hala izango da eta biok ere emaitza onak lortzea espero dut.

Zenbat judoka zoazte txapelketara?

Nire klubetik —Usurbilen aritzen naiz entrenatzen— lau goaz, ni barne. ◀



DANI GIBELALDE

bede BEHERAPENAK '05



Brooklyn Koltxoia

LEHEN: 421 €
ORAIN: 295 €

neurria 135 x 190 cm

Inoiz ikusi gabeko salneurriak

Atsedenerako osagaietan

oheak • nordikoak • burkoak
koltxoak • somierrak • funda nordikoak

Atsedean hartu nahi al duzu?



Dendak

Elola Altzariak
Lizardi plaza, 2 • TOLOSA • ☎ 943 65 29 01
Kanpainaren hasiera eta buketara herrialde edo autonomi erkidego bakoitzaren legearen arabera.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1

(Tolosa). 943 67 38 49.

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

IBARRA ▶ GIZARTEA

Indiara eman berri dituzte Laguntzak

Ghogha herrian funtzio anitzeko zentroa eraikitzen hasi dira San Bartolome misio taldeak emandako laguntzekin



San Bartolome misio taldetik joandakoak bertako lekaimerekin. HITZA



Haurtzaindegi zaharrena gainean eraikiko dute zentro berria. HITZA



Hemengo haurrek egindako marrazkiak ikusi zituzten Indian. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumezkoa. Neska edo andre bat behar da ume bat zaintzeko eta ebeko lanak egiteko goizez.

Deitu 635 700 936 zenbakira (arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara).

Saltzailea. Saltzaile bat behar da,

modakoa ez den denda baterako.

Egun osorako. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. Curriculum Vitae-a bidali argazkiarekin hurrengo helbidera: 157 posta kodea (saltzailea) 20.400 Tolosa.

Sukaldaria eta tabernaria.

Tabernarako sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu

15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.

Emakumea. Antiguan emakume

euskalduna behar da 8:30etik

14:30era ebeko lanak egiteko.

Deitu 669 99 74 57.

SALGAI

Ezkon soinekoa. Hannibal Laguna

diseinatzailearen ezkon soinekoa

dago salgai. Deitu 615 72 91 99

zenbakira.

Etxea. Alegiako Larraitz auzoan

ebexa salgai. 680 57 09 52.

INÍGO TERRADILLOS

Ibarrako San Bartolome misio taldeko zazpi lagun, Emeterio Sorazu herriko apaiza barne, izan dira Indian, aurrera eramaten ari diren proiektuen berri izateko eta bertako egoera ezagutzeko asmoz. Herriko apaizarentzat lehenengo aldia izan bada ere, misio taldeko hainbat kidek ezagutzen zuten India, behin baino gehiagotan izan baitira.

Gujerat probintziako ekialdean kokatzen den Indiako Ghogha herria bisitatu dute. Izan ere funtzio desberdinak beteko dituen zentroa eraikitzeko proiektuarekin ari da bertan misio taldea; horrela, bi eta bost urte bitartekoentzat haurtzaindegia, eskola zerbitzurako aterpea, gurasoen bileretarako lokala, emakumezkoen formaziorako lokala, gazteen kultur ekintzak aurrera eramateko lokala eta guztien zerbitzuak bideratzeko lokal moduan erabili ahalko da.

Proiektu honekin aurrera egiteko hainbat laguntza izan dituzte misio taldekoek. Misio taldeak antolatutako Merkato Txikia, VII. San Silbestre elkar-tasun krosa eta Laskorain ikastolak antolatutako Merkato Txikian bildutako zati bat erabili dute eta baita Ibarrako Udalak eman duen laguntza ere; hain zuzen ere misio taldeak parte hartzen duen proiektu bakoitzerako 3.500 euroko laguntza eman du. Indiakoaz gain, Ekuadorreko Santa Rosan eta Honduraseko hiriburuan, Tegucigalpan ere proiektu desberdinak ditu eta hirue-

tarako diru laguntza ematen du, guztira 10.500 euro.

Gainera, Aste Santuan, Joxe Mari Garmendia Ekuadorrera joandako Ibarrako apaiza etortzeko da eta berak ere kontatu ahalko die zertan lagundu daitkeen lurralde horretan.

Lehenengo harria

Funtzio anitzekoa izango den zentroaren lehen harria jarri zuten Ghoghan ibartarrak bisitan izan zirenean. Kasu horretan, misio taldekoek azaldu bezala, koko bat hautsiz egin zuten inaugurazio modukoa. Beraz, obrekin hasi dira, eta laster izango da martxan bertakoentzat hain beharrezko ikusi duten zentroa.

Bestalde, behin etxera bueltatuta eta izan duten esperientziari buruz galdetzean guztiek ere paregabea eta errepikatzen modukoa dela diote. Xabier Aierza misio taldeko kidearentzat laugarren bisitaldia izan da eta urterik urte egoera zertxobait hobetuz joan dela azaldu du. Hala ere, desberdintasun handia dagoela hiriburuetatik herri txikietara dio; «hiri handietan egoera txarragoa dela ikusi dugu, eta txikietan gurea bezalako proiektu txiki-kin poliki poliki aurrera egiten dute».

Emeterio Sorazu Ibarrako apaizak bertakoen jarrera nabarmendu nahi izan du Indiako herritarren artean bizi ondoren. Hiri handietako miseriak hunkiturik etorri daherriko apaiza, baina hala ere, gauza gutxiarekin zoriontsu direla ikusi du. Zuhaitz edo zuhaizpeei eta lurrari ematen dietan garrantziak ere harriturik utzi du, beraien bizitzan ezinbesteko irudi baitira. Internadoetan lekaimerekin egiten duten lana ere goraipe-tu nahi izan du Sorazuk.

Asko dugula horrelako kultura batetik ikasteko aipatu dute denek, eta ahal duten neurrian laguntzen jarraitzeko asmoa eta nahia azaldu dute.

IBARRA ▶

Bigarren Garagardo Festarako bilera

Datorren asteartean, otsailaren 22an, Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean, herriaren bigarren Garagardo Festa antolatzeko bilera egingo da. Bileran hau 19:30ean izango da eta herriko talde guztien parte-hartzea eskatzen da, Garagardo Festa hau denen artean gauzatu ahal izateko.

OREXA ▶

Barrikotea egingo da gaur herriko tabernan

Aspaldiko ohiturak berreskuratuz, eta herritarren eskarak kontuan hartu eta gero, barrikotea antolatu dute gaur Orexako Kontsu tabernan. Sagardo txotx-a prest dago gaur afaltzen izango diren 40 herritarrentzat. Urtean behin, barrikotea egiteko asmoa duela azaldu du bertako arduradunak.

ARESO ▶ HERRI LANAK

Hainbat herrilan 2005-2007 Azpiegituretako Planean sartzeko eskaria egin dute

Herrilanak aukeratzeko, aurrez herriko etxebizitza guztietan eginiko inkesta hartu dute kontuan; INEM-ekin lankidetzan, beste lan batzuk ere egingen dituzte

JAIONE ASTIBIA

Atzo goizean, 11:00etan zehazki, eginiko ohiko batzarrean ontzat eman eta berretsi zuten, 2005-2007ko laurteko Azpiegituretako Plan Orokorrean sartzeko herrilanen zerrenda. Aho batez onetsi ere, bertan bildu ziren bost zinegotzi eta alkateak, aldeko bozka eman eta gero.

Horrela, bada, Nafarroako Gobernuak, plan horren bidez hainbat herrilan diruz lagun ditzan eskaera egin dute. Alde batetik, herrigunearen urbanizazio lanei buruzko diru laguntza eskakizuna egin dute. Han azaldu zuten, «egunen batean araztegia jarri behar denerrako, herriguneko zati handi bat, erditsua, batera egokitu gabe dago», hori dela eta egokitzat jo zuten, eremu horretan «ur hartze eta saneamendu hodiariaren sarea berritzeko» lanak eskaeran sartzea. Horrekin batera, «auri uren eta argiztaketaren sarea sortu eta



Urbanizatzea falta den zatirako lanak aurkeztu dituzte Planean. J. A.

lurrazpian sartzeko lanak egin eta herrigunearen zolaberritzea» ere erantsi zuten, «argiztaketa eta farol berriekin» batera. Eskaera egin duten lan hauekin guztiekin, Aresoko herrigunearen urbanizazio lanak bukatutzat emanen litzukete.

Lan hauek guztiek 312.383 euroko «gutxi gora beherako» aurrekontua omen dute. «Kan-

titate hauek, eskaera egiteko, lan horien kostuaren estimazioa besterik ez dira. Ideia bat egiteko», zioten. «Gerora, laguntza emanen dutela jakinarazten badiote Udalari, eta zein lanetarako, noski, orduan herrilan zehatz horietarako proiektu eta aurrekontu zehatzak erredaktatu beharko dira», argitu nahi izan zuten udalbatzarrean.

Herrigunearen berrikuntza lan hauek gain, hainbat base-rritarako pisten hobekuntza eta zolaketa lanak ere planean sartzeko eskaera egitea erabaki zuten: Gereñone eta Pedronerako bidea, Santuru eta Txuinekoa, Belakukoa, Felipe Bordakoa eta Iruñegikoa. Oro-tara, beste 135.274 euroko kostua izango luketela egin zuten estimazioa eta horrekintze adostu zuten erabakia.

Inkestari kasu eginez

Jakitera eman eta nabarmendu nahi izan zuten, Lau urteko Plan horretan sartzeko herrilana aukeratzeko, ordea, aurrez, herriko etxebizitza guztietara galdeketa orri bat banatu omen zuten Udaletik eta herritarrengandik jasotako erantzunetan oinarritu omen dira, erabakia hartzerakoan.

«Bi gairen inguruan galdegin genuen inkestan: etxebizitza beharrik bazuten eta herrirako ikusten zituzten beharrak. Eta erantzuteko epe bat jarri.

Erantzun dezente jaso ziren», adierazi zuten. «Horrela, gaurko erabakiaren kasuan, beharren atalean agertu ziren eskaera guztiak sartu ditugu», esanez jarraitu, «planean sar zitezkeen guztiak, alegia», zehaztuz.

Izan ere diru laguntza deialdi hauek argitaratzen dituztenean, herrilan mota batzutarako bakarrik egiten omen dute eta horietara egokitzen diren lanentzat egin omen daiteke eskaera soilik, deialdi hau jasotzen duen Foru Legearen arabera eta bilkuran bertan ere hala adierazi zuten. «Inkestan jasotako erantzunetatik planean sartu zitezkeen lanak, herri bideen atalarako egokiak ziren eta guztiak sartu dira. Gainerakoak beste modu batera bideratzen saiatu beharko da», aipatu zuten.

Herriko jendea lanean

Bestalde, udalbatzak erabaki zuten ere, beste herri lan batzuk INEMekin elkarlanean egitea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin deialdiaren barrenean, ondorioz bertan eskaintzen dituzten diru laguntzak onartuz. Horren bidez «herrian langabezian dauden lagunak kontratatu eta herriko hainbat lan berezi egin daitezke, ia materialaren kostua bakar-ra izanez», argitu zuten. Puntu honetan, aho batez hartu zutena ere, «udaletxean bertako gureko teiltatuaren mentenimendu lanak eta Martikone ondoan, kalea zabaltu» egingen dituztela adostu zuten.

LEITZA ▶ KULTURA

Zineman, 'La terminal' filma botako dute

Komedia, drama, erromantzeak ere baditu

J. ASTIBIA

Gaur 22:30ean eta igandean 19:30ean, *La terminal* film estatubatuarra proiektatuko dute. Spielberg-ek 2004ean zuzendutako honetan, besteak beste Tom Hank, Catherine Zeta-Jones, Stanley Tucci, Chi McBride eta Diego Luna aktoreek egin zuten lan.

New York ezagutzeko asmoz, AEBetara bidaiari doan bitartean, bere sorterrian estatu kolpea eman eta Kennedy aireportuko terminalean, jada inongoa ez den pasaporte eskuan, eta ondorioz, AEBetara sartzeko baimenik gabe gelditu den gizon baten bizipen umorezko, dramatiko eta erromantikoak kontatzen ditu.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA
PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezuntza.net

IPAR EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA ALTERNATIBOIA



Egin zaituzte laguntzaile! aukera hauek dituzte:

- Bete ondorengo fitxa eta faxez bidali zenbaki honetara: 00 33 559 372108
- Bete ondorengo fitxa eta postaz bidali helbide honetara: Euskal Herriko Laborantza Ganbara. 64220 Ainhize-Monjolose (Behenafarroa).
- Bete ondorengo fitxa eta behean sinatzen dugun sindikatuotako ordezkarien bati eman.
- Fitxan eskatzen diren datuak posta-e helbide honetara bidali: syndicat.elb@wanadoo.fr

Izen-abizenak	Zk.	Solairua
Helbidea	Posta kodea	
Herria	Tel.	posta-e
Herrialdea		
KONPROMISOA		
2005, 2006 eta 2007an Ipar Euskal Herriko Ganbara Alternatiboari urtean 60 edo 100 euroko diru laguntza emateko konpromisoa hartzen dut/dugu		
<input type="checkbox"/>	60 €	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	100 €	
ORDAINKETA DATUAK		
KONTU ZENBAKIA: _____ Data		
Bankua edo kutxa	Bulego zenbakia	kontrol zk.
		Kontua
		Sinadura

EHNE • ELA • LAB • ESK • STEE-EILAS • HIRU • EGAS

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 18a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aiztoletoa, Aduna, Albitur, Aiega, Aliza, Alzo, Amerleto,
Anso, Balaizoa, Baratzia, Berastegi, Edoan, Herrialde, Itana,
Ikaztegieta, Itura, Leizola, Leizua, Lizartza, Orendan, Orosa, Tolosa,
Villabona, Zorri. **bestenik:** Leizaldeko Euskara Bazardea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurfari-tza,
Kultura Sailea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

07

hotzena

05

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai



Pagomari: bai
Igaratza: bai



HITZA-KO BEZERÖEN
ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak, harpidetza egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Alegia. Gizonak antzezlanak aurkeztuko du Ttapa taldeak, gaur eta bihar, 22:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 3 euro.
Tolosa. Kanpingags taldearen *Ezetz lepoa jarri* antzezlanak. 22:30ean, Leidor zineman.

DEIALDIAK

Tolosa. Tolosako Korrika Batzordearen bilera, AEK-Arramelen 19:00etan.
Tolosa. Holiday zirkoa Ferialekuan 18:30ean.
Tolosa. 2005-06 ikasturterako aurrematrikula marxan du Udal Haur Eskolak. Argibideak: Udal Euskara Zerbitzua (943 69 74 53) eta Udal Haur Eskola

KIROLA

GAUR

Areto futbola
▶ Cabo Rojo-UPV-Transportes Lakunza (Autonomikoa. 22:00, Mons).
▶ Cash Converters-Eskolapioak

B (1. maila A. 20:45, Olaederra).

Esku pilota

(Gipuzkoako Elkarleen Artekoa)
▶ Aurrera Saiaz (Unai Aspe-Imanol Amatriain)-Berriobkoa (Sub 22. Beotibar, 21:00).
▶ Bergara- Aurrera Saiaz (Axier Telleria-Ioseba Senperena). (Jubenil 1. M. Bergara, 19:30).
▶ San Esteban-Urnieta (Eskuz binaka, Kadeteen 2. maila. Berastegi, 19:00).
▶ San Esteban 2-Añorga 1 (Eskuz binaka, Jubenilen 1. maila. Berastegi, 19:00).
▶ San Esteban 1-Añorga 2 (Eskuz binaka, Jubenilen 1. maila. Berastegi, 19:00).
▶ Goierri-Elordi/Herrigintza (Eskuz binaka, Jubenilen 2. maila. Urretxu, 19:00).
▶ Bergara-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka, Jubenilen 1. maila. Bergara, 19:30).
▶ Kuku-Zumaia (Eskuz binaka, Nagusien 3. maila. Alkartasuna, 20:30).
▶ Elordi Herrigintza 1-Eskoriatza (Eskuz binaka, Kadeteen 3. maila. Ikaztegieta, 21:00).

▶ Elordi Herrigintza 2-Oiarpe (Eskuz binaka, Kadeteen 3. maila. Ikaztegieta, 21:00).
▶ Lagunak-Behar Zana (Eskuz binaka, Nagusien 2. maila. Elgoibar, 22:00).

Zesta-punta

▶ Beotibar 2-Gazteleku 2 (Nagusien maila. Beotibar, 20:00).
▶ Beotibar-Donostia Jai Alai 1 (Nagusiak. Beotibar, 18:30).

BIHAR

Futbola

▶ Tolosa-Pasajes (Goren Maila. Berazubi 16:30).
▶ Tolosa B-Ostadar (Lurraldekako 1. Maila. Zubieta 17:00).
▶ Danena-Munibe (Lurraldekako 2. Maila Igoera fasea. Elbarrena Zizurkil 16:30)
▶ Internacional-Intxurre (Lurraldekako 2. Maila Igoera fasea. Matigoxotegi 17:00).
▶ Urki-Amaroz (Lurraldekako 2. Maila Kopa. Unbe Eibar 19:30).
▶ Billabona-Beasain (Jubenilen 1. Maila. Arratzain 16:30).

▶ Intxurre-Oiartzun (Jubenilen 1. Maila. Elorri Alegia 16:30).

Futbol 7

▶ Ibarako Gazte Asanblada-La Kabutzia (1. Maila A. Beasain 2. 19:00).

Areto futbola

▶ Femesala Elx-Hegoalde (Ohorezko Maila. Elx 19:30).
▶ Candesa Camargo-Ibarra (1. Nazionala A. Camargo Cantabria 17:00).
▶ Gsi Bilbao EHU- Laskorain (1. Nazionala B. San Ignacio Bilbao 19:00).
▶ Sestao-Lauburu (Jubenilen Liga Nazionala. Benedicta Sestao 19:45).
▶ Altzako-Laskorain (Neskak. Altxa 17:00).
▶ Ordizia Gamesa-Tinta Billabona (Neskak. Majori 16:00).

Saskibaloia

▶ Aralar Kirolak-Loiola (Senior. Berazubi 17:00).

Pilota

(Gipuzkoako Elkarleen Artekoa)
▶ Kuku-Zumaia 1 (Pala motza Nagusiak. Zumarraga 11:30).
▶ Behar Zana-Ataun (Eskuz binaka. Kadete 1. maila. Amasa 12:30).
▶ Behar Zana-Gazteleku (Paleta larrua. Nagusiak. Amasa 12:30).
▶ Ametsa 3-Ametsa 4 (Xare. Irura 15:30).
▶ Ametsa 1-Ametsa 2 (Xare. Irura 15:30).
▶ Murumendi-Kuku (Eskuz binaka, Kadeteen 3. maila. Beasain, 15:30).
▶ Murumendi-Elordi Herrigintza

(Eskuz binaka, Kadeteen 1. maila. Beasain, 15:30).
▶ San Esteban 2-Elordi (Eskuz binaka. Bidegoian 16:00).
▶ Aurrera Saiaz 1-Behar Zana 2 (Eskuz binaka. Bidegoian 16:00).
▶ Añorga-Aurrera Saiaz (Pikabea-Galarraga) (Eskuz binaka, Nagusien 3. maila. Añorga, 16:00).
▶ Zarautz 1-Kuku (Eskuz binaka, Jubenilen 2. maila. Zarautz 16:30).
▶ Aurrera Saiaz (Lasa- Montiel)-Ikaskirola 1 (Eskuz binaka. Kadeteen 3. maila. Bidegoian 17:30).
▶ Aurrera Saiaz (Iriarte-Galarraga)-Lazkao (Eskuz binaka. Jubenilen 2. maila. Bidegoian 17:30).
▶ Aurrera Saiaz (Telletxea)-Upomendi (Euskadiko Klub Txapelketa. Kadetea. Bidegoian 17:30).

(Garziandia Txapelketa. Beotibar 10:15)
▶ Bengoetxea-Ontxalo (Leizta)/Loiola-Yubero (Intxaurrondo).
▶ Dominguez-Berasaluze (Intxaurrondo)/ Mikelerperizena-Zubieta (Bera).
▶ Urdaniz-Ruiz (Oberena)/Cerezo-Uharte (Bera).

MUSIKA

Tolosa. Dinbi danba jazz rock talde donostiarraren kontzertua Fronton kafetegian, 23:00etan.
Villabona. Bi taldek –Obito eta beste bat– kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, 22:00etan. Europako Konstituzioari Ezetzaren aldeko ekimenak antolatuta.

AGURRAK ▶



AUPA PELLO ETA JULEN!
Biba zuek!
Borrokaren bitartez lortuko dugu. Villabonako Segi.



AUPA ANDER!
Eutsi goian!
Jo ta ke irabazi arte!
Peñane.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

Sagarren hitza hitzaren sagardotegia

STOCKHOLM S taldea + bertsolariak, trikitalariak...

otsailak 19, larunbata

20:30etik aurrera ZARAUZKO MERKATU PLAZAN
(Komeni da txartelak lehenbailehen erostea)

SARRERAK:
▶ 8 euro (afaria + sagardoa)
▶ 5 euro (sagardoa)
Afaria: saiheskiak, letxuga, gazta eta intxaurrak.
Sagardoa: nahi adina, upeletatik.

TXARTELAK HONAKO LEKUAN:
▶ ZARAUZK ▶ Hitzaren egoitza + Txiki-Polit
▶ ZESTOA ▶ Koiote taberna
▶ AZPEITIA ▶ Hitzaren egoitza
▶ ZUMAIA ▶ Gaur eta bihar BALEIKEREN azoka
▶ GETARIA ▶ Mahasti taberna
▶ ORIO ▶ Unar eta Kolon-txiki tabernak